

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUHATZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Zuhaizti enkantea

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuaren ezinbesteko baimenarekin, eta Zuhatzako Administrazio Batzarrak 2018ko apirilaren 24an hartutako erabakiaren bidez, baso hauen aprobetxamenduak enkante publiko bidez emango dira (gutun azal itxi bidez):

Lote bakarra. "El Piquillo" izeneko mendian, Zuhatzako Kontzejuko 2 poligonoko 2204 partzelan, arraseko mozketaren bidezko aprobetxamendua: 568 *intsinis pinu*, 736,179 m<sup>3</sup> 1/4an, 33.864,23 euroko prezioarekin; eta, beste 74 *intsinis pinu* gehi puntak, 72,032 estereo, 72 euroko prezioarekin, BEZa aparte. Guztira, 33.864,23 euro, BEZa aparte.

1. Erakunde esleitzaila, kontratuaren xedea eta lizitazio oinarria. Zuhatzako Administrazio Batzarra.

2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

Izapidetzea: arrunta.

Prozedura: irekia.

Esleitzeko era: enkante publikoa.

3. Behin-behineko eta behin betiko bermeak:

Behin-behinekoa: aprobetxamenduaren ehuneko 3 (1.018,08 euro).

Behin betikoa: esleipenaren ehuneko 5 (BEZa aparte). Esleipendunak baso bide publikoak erabiltzearen tasa eta bermea ordainduko ditu, zeinak agirian zehaztuta baitaude.

4. Ordaintzeko era: administrazio klausula berezien agirian adierazitakoa.

5. Aprobetxamendurako epea: 6 hilabete.

6. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

7. Agiriak eta lizitazio baldintzen informazioa eskuratzea: Aiarako Udala (Elizako auzoa 2, 01476 Arespalditza; telefonoa: 945 399013; faxa: 945 399331; [info@aiarakoudala.com](mailto:info@aiarakoudala.com)), asteleheneretik ostiralera, 9:30etik 14:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epearen amaiera arte."

8. Eskaintzak aurkeztea:

Aurkezteko tokia eta data: eskaintzak gutun azal itxian aurkeztu behar dira, Aiarako Udalaren Erregistro Orokorrean, 09:30etik 14:00etara, asteleheneretik ostiralera, hamabost egun naturaleko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Eskaintzak aurkezteko epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea izanez gero, epea hurrengo egun baliogabea 14:00etara arte luzatuko da.

Proposamen eredia eta aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek administrazio klausula berezien eta baldintza tekniko eta ekonomikoen agirian aurreikusten den eskaintza ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak, eta bertan adierazten diren agiriak erantsi beharko dituzte.

Eskaintzak irekitzea: Zuhatzako Administrazio Batzarraren egoitzan, eskaintzak aurkezteko ezarritako epea bukatu eta hurrengo egun baliodunean (larunbata bada ez), 20:00etan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zuhatza, 2018ko abenduaren 11

*Lehendakaria*

*FLORENTINO URQUIJO ORUETA*